



Zorionak eta urte berri on!

Txistorra eta taloa, izango da gaurko leloa

Gaur ospatuko da Santo Tomas eguna, eta goizetik izango dira postu eta ekintzak Urumea bailarako hainbat herritan, hala nola, Astigarraga, Hernani eta Ereñotzun.

URUMEA SANTO TOMAS

Gabonak ate joka ditugu, hori dela eta, Urumea bailarako hainbat herritan ospatuko da Santo Tomas eguna, goizetik egongo dira postuak, txokoak, trikitilariak eta erromeriak.

Astigarragan, goizeko 10:30etatik aurrera Foru Plazan, ikaslek egindako gozoak, txorimaloak, eskulanak, baserritar zapiak nola jantzi eta abarkak nola lotu erakusteko txokoa ere izango da bertan, trikitilariak eta kantu jaialdiak ez dira falta. Ondoren eguerdiko 13:30etan zozketak egingo dira. Astigarragako Herri Eskolako guraso eta irakasleek antolatutako eguna izango da gaurkoa.

Hernanin ere Santo Tomas eguna ospatzeko, hainbat postu egongo dira leku ezberdinetan; Plaza Berrin, 11:00etatik 14:30etara pintxoak, taloak eta bokadiloak egongo dira salgai, eta arratsalderako erromeria antolatu dute, 18:30etatik 20:30etara; Patxi eta konpainia taldearen eskutik, hau guztia San Joan Konpartsak antolatuta. Plaza Berri ondoan, Hernaniko Eskubalo taldeak ere postua jarriko du, eta 13:45etan zozketa egingo dute.

Langileren 50. urteurrena ospatzeko aitzaki gisa, langile ikastolak ere izango du bere talo eta txistor postua, 10:00etatik 14:30etara, Urbieta kalean.

Ereñotzun berriz, hilaren 20an ospatuko dute Santo To-



Aurreko urtean, giro paregabeaz gozatu zuten Santo Tomas egunean, Hernanin.

Astigarragan, gaur goizeko 10:30etatik aurrera egongo dira postuak, eta Hernanin 11:00etatik aurrera; Ereñotzun, berriz, 20an izango da Santo Tomas festa, Txirritan.

mas eguna, Txirrita ikastolan bertan egingo dute festa. Goizeko 11:30etarako txistor eta pintxo postuak prest egongo dira, auzotar eta gurasoentzat.

Abenduak 20 eta 22an ere, Santo Tomas

Gaur Santo Tomas eguna ospatu

arren, hilaren 20 eta 22an postuak egongo dira Gabriel Zelaian eta Urumea Ikastolan, Santo Tomas egun ofiziala 21ean baita.

Beraz, hilaren 20an, Gabriel Zelaian jarriko dute postua, Zelabide auzo elkartearen eskutik. Eta 22an berriz, Urumea Ikastolan Santo Tomas eguna ospatuko da, Gibelalde auzo elkarteak antolatuta, hain zuzen. 12:30etatik aurrera, txistorrada eder batez gozatzeko aukera egongo da, eta jarraian zozketa egingo dute, Gibelaldeko bazkideen artean.

Horrez gain, Gabonetako lehiaketa ere antolatu dute, erai-kinetako leiho eta balkoiak apaintzen oinarritutakoa. Originaltasuna, diseinua eta argiztapena hartuko dira kontuan. **K**

SANTO TOMAS URUMEAN

ASTIGARRAGAN

Gaur, larunbata

10:30etan, Santo Tomas azoka, Foru plazan: ikasleek egindako gozoak, txorimaloak, eskulanak, baserritar zapiak nola jantzi eta abarkak nola lotu erakusteko txokoa; Trikitilariak eta kantu jaialdia. **13:30etan**, Zozketak egingo dira.

HERNANIN

Gaur, larunbata

11:00etatik 14:30etara, Santo Tomas azoka, Plaza berrin: pintxoak, taloak eta bokadiloak aukeran. **10:00etatik 14:30etara**, Langile ikastolak, talo eta txistor postua jarriko du, Urbieta kalean.

13:45etan, Plaza Berri ondoan, Hernaniko Esku baloi taldearen postuan, zozketa.

18:30etatik 20:30etara, Patxi eta konpainia taldea.

Abenduak 20, Santo Tomas eguna ospatzeko azoka jarriko dute bezperan, Gabriel Zelaian.

Abenduak 22, Santo Tomas eguna ospatuko dute, Urumea ikastolan. 12:30etatik aurrera txistorrada eta 13:00etan, zozketa Gibelaldeko bazkideen artean.

EREÑOTZUN

Abenduak 20

11:30etan, Txirrita ikastolan, txistor eta pintxo postuak egongo dira auzotarrentzat eta Txirritako haurren gurasoentzat.

ARTOLA

HARATEGIA

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Andre Kale 20 · Hernani ·

Tlf.: 943 05 54 89

Amaia

arrandegia

Zorionak eta urte berri on!

943 55 07 52 / 650 53 87 72

Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

IMANOL KAMIO

musika eskola

DOINU-ZALE

KARABEL AUZOA, 4 - behea ezkerre

943 33 12 33

Solfeoa

Pianoa

Akordeoa

Panderoa

Bateria Modernoa

Biolontxelo

Tronpeta

Trikitixa

Kitarra

Abesbatza

Armonia

943 33 12 33 - 637 85 79 62

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu. Eguberri On!

Dozena bat emanaldik jarriko diete soinu-banda, Gabonetako jolas, tailer eta ekintza bereziei

Hernasaxek eta akordeoi orkestrak jarri zizkieten aurreneko doinuak Gabonei, atzo; eta bihartik aurrera, makina bat kontzertu, kale buelta eta erronda izango dira, bailara osoan.

URUMEA GABONAK

Instrumentuen doinuek eta herritarren ahotsak emango diete bizitasuna, beste urte batez, Gabonetako egunei. Izan ere, dozena bat emanaldi eskainiko dituzte, bailarako osoko musikari eta abeslariak.

Atzo agerian utzi zuen data seinalatuak gainean direla, Hernasaxek eta Hernani Musika Eskolako akordeoi orkestrak Milagrosan eskaini zuten Gabonetako kontzertuak. Eta bihar ere, nabarmena izango da hori: emanaldi bana eskainiko dute, Hernanin, Astigarragan eta Goizuetan. Eguerdiko 12:30etan ariko dira Umore Ona abesbatza eta Goizuetako haurrak, elizan, Eneko Amundarain eta Ainara Narbarte zuzenduta. Eta ordu berean daukate zita, Astigarragako Andre Maria elizan, Norberto Almandoz musika eskolako musikari eta abeslariak, eta Aiztondo abesbatzak. Aurretik, gainera, entzunaldiak eskainiko dituzte ikasle gaztetxoek, 10:00etan hasita, musika eskolako aretoan.

Hernanin, berriz, kontzertu berezia eskainiko du Txistulari Bandak, 13:00etan Milagrosan, biolin-jole eta piano-jole banarekin: Juan Jose Arregiri eskerak emango dizkiote, musikaren alde egindako guztiagatik.

Ereñotzun, asteartean izango da musikaren txanda, San Antonio elizan: Txirrita eskolako ikasleak, Ozenki abesbatza, eta Doinu Zaleko ikasleak zein akordeoi orkestra ariko dira, 19:00etan hasita.

Eta hortik aurrera, urteroko zitekin gozatu ahal izango dute, hernaniarrek: Gabon Kanten

Jaialdia, eskoletako eta herriko abesbatzen eskutik; Gabon gaueko eta Urte Zahar Eguneako erronda eta kale bueltak...

Emanaldi horiek guztiek jarriko diete soinu-banda, Gabonei; baina beste hainbat ekintza ere izango dira bailaran.

Jolas parkeak, tailerrak eta zinea gozagarri, gaztetxoek Ekintza horietatik gehienak, haurrei zuzendutakoak izango dira. Hernanin eta Astigarragan, esaterako, jolas parkeak jarriko dituzte, hainbat egunetan. Ereñotzun, berriz, Negulekuetan izango dute aisialdi aukera. Gaztetxoentzako zine saioak ere antolatu dituzte: *Elkano*, *lehen mundu bira* lau egunetan jarriko dute Hernanin; eta *Oreina* eta *Supertramp* emango dute Goizuetan. Ipuin kontaketa bat ere izango dute goizuetarrek: *Amonaren istorioak*, Amaia Elizagoienekin.

Aranon ere jarriko dute pelikularik: *Napardeath* ikusiko dute 28an, filmaren egileak bertan direla; eta afari batekin eta Atozia rol jokoarekin borobilduko dute eguna.

Astigarragan, korrika egiteko tarteak ere izango dute haurrek, Inuxente Krosean, helduek bezala. Eta Hernanin, hainbat tailer antolatu dituzte: Argigrama lantegia, sormen tailerra eta komiki tailerra. *Burbuilak* antzezlanak ere eskainiko dute.

Baina bereziki, hutsik egingo ez dutenak, haurrak beraiengana erakarriko dituzten lau lagun dira: bailarako herri guztiak bisitatuko ditu Olentzerok, abenduaren 24an; eta Hernanin eta Goizuetan izango dira Errege Magoak, urtarrilaren 5ean. **K**



Atzo eskaini zuten Gabonetako aurreneko kontzertua, Hernasaxek eta Hernani Musika Eskolako akordeoi orkestrak.



Jolaserako tarteak izango da Astigarragako zenbait txokotan, aurten ere.

Eguneroko ogia beti bikain **Urte berri on!**

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89

20120 Hernani

urteberri on!!

AZKEN KILOMETROA

943 24 71 41 Akarregi, 1 Hernani

Zorionak eta urte berri on!

MK estudioa ileapaindegia

Andrekaile 48, atzealdea
HERNANI
943 55 20 81

ASTIGARRAGAN

Abenduak 15, Gabonetako kontzertua, Norberto Almandoz musika eskolak eta Aiztondo abesbatzak. Andre Maria elizan, 12:30etan. Parte hartuko dute, musika eskolako instrumentu taldeek, eta Aiztondo eta musika eskolako abesbatzek. Aurretik, entzunaldiak izango dira musika eskolako areto nagusian: 0-3 urtekoen tailerretako ikasleenak 10:00etan, eta 1 eta 2 tailerretakoak 10:30etan.

Abenduak 20:

-Beat Box tailerra, Oro-drethen eskutik. Gaztelekuan, 18:00etan. Doakoa izango da.
-Kirol Eguna, Mundarrok antolatuta, kiroldegian: haurren erakustaldiak 16:00etatik 17:15etara; strong eta jump fit saio irekiak 18:00etatik 19:00etara; ziklo indoor saio irekia 18:15etatik 19:15etara; Hiiit, zumba, bungee eta ziklo saio irekiak 19:15etan; eta eguna bukatzeko, afaria eta mozerro lehiaketa. Aurrez eman behar zen izena.

Abenduak 22, Inuxente Krosa, Mundarrok antolatuta. Kale Nagusian izango da irteera eta helmuga: haurren lasterketa arratsaldeko 15:30etan, eta helduena (6 kilometro) 16:30etan. Izenematea egunean bertan, 15:30etatik aurrera: haurrek doan, eta helduek 5 euro.

Abenduak 23, 26 eta 27, Jolas Txikiren aurreneko txanda, Mundarrok antolatuta. 2-5 urtekoentzat, kiroldegian, 09:00etatik 13:00etara. Aurrez eman behar zen izena.

Abenduak 24, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, 11:30etan, Xaguxar aisialdi taldeak antolatuta. Santiomenditik jaitisiko dira, eta Herri Eskolako atarian haurrekin elkartu ondoren, herriko kaleetan zehar ibiliko dira. Bukarera, udaletxeko balkoitik abestuko dute haurrekin batera, eta bertatik agurtuko dituzte.

Abenduak 26, 27, 28 eta 31, eta urtarrilak 3, Jolas Aretoa kultur etxean, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara. 9-12 urtekoentzat. Sarrera irekia eta doakoa izango da.

GABONETAKO EGITARAUA URUMEA BAILARAN



Argi berezia izango dute Gabonetako egunek bailaran, Errege Magoen kabalgatara arte.

Abenduak 27-28, Ohe elastikoak eta puzgarriak herriko hiru plazatan, Astiko merkataritza elkarteak antolatuta. Joseba Barandiaran, Norberto Almandoz eta Kontxa Etxeberria plazetan, 11:00etatik 13:30etara eta 17:00etatik 20:30etara. Horietan doan ibiltzeko txartelak banatuko dituzte hilaren 16tik 24ra, Astiko-ko establezimenduetan, erosketak egitearen truke; eta salgai ere egongo dira.

Abenduak 30, eta urtarrilak 2 eta 3, Jolas Txikiren bigarren txanda, Mundarrok antolatuta. 2-5 urtekoentzat, kiroldegian, 09:00etatik 13:00etara. Aurrez eman behar zen izena.

Abenduak 31-urtarrilak 1, Urte Berriko jaia, Gazte Asanbladak. Gazte Topa egingo dute Zipotza tabernan, 01:30etan, urte berriari ongi etorria emateko.

HERNANIN

Abenduak 15, Gabonetako txistu kontzertua, Txistulari Bandak, biolin-jole eta piano-jole banarekin. Juan Jose Arregiri eskerrak emateko izango da. Milagrosan, 13:00etan.

Abenduak 18, Gabonetako

kontzertua, Hernani Musika Eskola Publikoko teklatu taldeak. Biterin, 19:00etan.

Abenduak 19:

-Gabon Kanten Jaialdia, herriko eta ikastoletako abesbatzek. San Joan Bataiatzailearen elizan, 20:00etan.
-Nahastekak: 'Gauekoak' dantza ikuskizuna, Kukairen eskutik. Biterin, 20:00etan. Sarrerak salgai, 7,5 euroan.

Abenduak 20, Jaiotza eta Olentzeroa jartzeko hitzordua, Atarrabiyo parkean, 09:00etan. Iturritxo elkarteak antolatuta, nahi duten guztiei luzatu diete deia, parte hartzeko.

Abenduak 21, Gabonetako kontzertua, Ozenki eta Umore Ona abesbatzek, eta Hernaniko Musika Bandak. San Joan Bataiatzailearen elizan, 20:00etan.

Abenduak 21, 22, 28 eta 29, 'Elkano, lehen mundu bira' filmaren emanaldia, haurrentzat. Biterin, 16:30etan.

Abenduak 23, Olentzeroa, Hernani Musika Eskola Publikoarekin. Erdigunean barrena, 12:00etatik aurrera.

Abenduak 23, Argigrama lantegia, Nagore Legarretaren eskutik. 6 urtetik gorakoentzat, heldu batek

lagunduta. Biterin, 16:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Aurrez eman behar da izena.

Abenduak 24:

-Gabon gaueko kale buelta, Kantuz abesbatzak. Milagosatik abiatuta, 12:00etan.
-Olentzeroa kaleetan barrena, Ttaria dantza taldeak antolatuta. Kaxkoan barrena, 18:00etan abiatuta.
-Gabon gaueko erronda, Hernaniko Musika Bandak. Kaxkoan barrena, 20:00etan.

Abenduak 25-27, Haurrentzako ludoteka, kiroldegiko frontoian, 10:30etatik 13:30etara.

Abenduak 26-28, Sormen Tailerra. 2004-2007 jaiotakoentzat, Biterin. Aurrez eman behar da izena.

Abenduak 27, 'Burbuilak' haurrentzako antzerkia, 7 Burbujas konpainiaren eskutik. Biterin, 18:00etan. Sarrerak salgai abenduaren 17tik aurrera.

Abenduak 30-urtarrilak 3, Komiki tailerra, Udal Liburutegian, 11:00etan. Doakoa da.

Abenduak 31, Urte Zahar Eguneko erronda, Hernaniko Ohitura Zaharrak abesbatzarekin. Kaxkoan barrena, 17:30etan abiatuta.

Abenduak 31, Liburu eta disko

azoka solidarioa, Plaza Berrin, 09:00etatik 14:00etara.

Urtarrilak 5, Errege Magoen kabalgata, herriko kaleetan barrena, Berriak elkarteak antolatuta.

GOIZUETAN

Abenduak 15, Gabonetako kontzertua: herriko haurrak, Ainara Narbarte zuzenduta; eta Umore Ona abesbatza, Eneko Amundarainek zuzenduta. Elizan, 12:30etan.

Abenduak 22, 'Oreina' filmaren emanaldia, Xalto eskolako jangelan, 18:00etan. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrerak, 2 euroan.

Abenduak 24, Olentzeroa hartuta, etxez etxe ibiliko dira haurrak, goizean. Eta arratsaldean, presoen aldeko Olentzeroa aterako da.

Abenduak 27, 'Amonaren istorioak' haurrentzako ipuin kontaketa, Amaia Elizagoienek eskutik. Xalto eskolako jangelan, 17:00etan.

Abenduak 30, 'Supertramp' filmaren emanaldia, Xalto eskolako jangelan, 18:00etan. Haurrentzat. **Urtarrilak 5,** Errege Magoen kabalgata.

EREÑOTZUN

Abenduak 17, Gabonetako kontzertua, Txirrita eskolako ikasleek, Ozenki abesbatzak, eta Doinu Zaleko ikasleek eta akordeoi orkestrak. San Antonio elizan, 19:00etan.

Abenduak 23-urtarrilak 3, Negulekuak Ereñotzun, 09:00etatik 13:30etara.

Abenduak 24, Olentzero bizkarrean hartuta, etxez etxe ibiliko dira auzotarrak, trikitixa eta pandero-joleekin batera.

ARANON

Abenduak 24, Olentzero hartuta, etxez etxe ibiltzeko hitzordua.

Abenduak 28, *Napardeath* filma Maisuenean, 19:00etan. Bertan izango dira Beñat Iturrioz zuzendaria eta filmeko beste hainbat partehartzaile, eta solaserako tartea egingo dute. Ondoren, elkartearen, afaria eta Atopia rol jokoa. Joateko, abixatu aurrez: jalkikulturelkarkea@gmail.com.

ERRIOGUARDA-ENEAK
J A T E A K
Errioguardako lagunok
jai zoriontsuak
opa dizkizuegu.

Iturriaga kalea, 10 - Tel: (943) 33 02 91

Eukene
Jantzidenda
Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Nafar kalea, 14 - Tel.: 943 332 199

HATOR
AHOLKULARITZA
Gabon zoriontsuak
eta urte berri oparoa
opa dizkizuegu!

Andreale, 60. Hernani
Tel: 943 55 43 12
www.hatoraholkularitza.net

Gabon
zoriontsuak
eta urte berri on!

Nagusia 32, ASTIGARRAGA 943 55 49 89 ikatzataberna@gmail.com

Langile ikastolako Iruñe Eizagirreri txapela jarrita eman zaio hasiera, aurtengo Bertsolatari

Eskolarteko bertso-paper lehiaketa irabazi du. Bertsolatak hurrengo emanaldia, ostiraleko bertso-poteoa izango da. Gehiagoren artean, 'Auskalo zeinek jarriak' emanaldia izango da, eta sarrerak salgai daude.

HERNANI BERTSOLATA

Ostegunean egin zen Biterin, urtero Hernaniko Bertso Eskolak antolatzen duen Bertsolata zikloari hasiera eman zion emanaldia: eskolarteko bertso-paper lehiaketako sari banaketa.

Aurtengoan ere, Hernaniko Urumea, Elizatxo, Inmakulada eta Langile eta Ereñotzuko Txirrita eskoletako ikasleek hartu dute parte. Eta irabazlea, Langile ikastolako Iruñe Eizagirreri izan da. Txapelaldia izateko ohoreaz gain, aukera izango du gustukoen duen bertsolaria eskolara gonbidatzeko. Eskola bakoitzeko sorta banak ere jaso zuen saria, Iker Ormazabal eta Agin Laburu bertso eskolako kideen eskutik, eta bertso saioa ere eskaini zuten biek, ondoren.

Kalean edota epelean, bertsoen goxotasunean

Bertsolata hasi besterik ez da egin, hala ere, sari banaketa horrekin. Horrela, urtea bukatu arte, beste makina bat hitzordu jarri dituzte Iraulio Panttalone Bertso Kabiako kideek.

Hurrengo datorren ostiraleko bertso-poteoa izango da. Hilaren 20an,

bertso-poteoan aritzeko gonbidapena luzatu diete herritarrei. Zein bertsolarirekin arituko diren zehaztu ez badute ere, arratsaldeko 18:30etan abiatuko dira kale-bueltan.

Hurrengo hitzordua ere, kalean jarri dute: urteroko erronda egingo dute Olentzero bizkar gainean hartuta, Eguberri bezperan, abenduaren 24an.

Jarraian antolatutako ekitaldiak, bestalde, areto baten epelean egingo dira: Agirre anaiei *Auskalo zeinek jarriak* bertso jarrien emanaldia, eta urteroko bertso-jaialdia. Urtea bukatzeko, ordea, kalera aterako dira berriro, urteroko moduan, Urte Zaharreko errondan.

Agirre anaiei bertso jarrietarako sarrerak, salgai

Bertsolatak emanaldi berezien artean egongo da aurtengo Eñaut eta Unai Agirre anaiekin eskainiko duten *Auskalo zeinek jarriak* emanaldia. Hilaren 26an izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita, Biterin.

Emanaldi honetan, «bertso jarria eta bat-batekoa eskutik helduta» joan direla aldarrikatzen dute Agirretarrek. Bertso

historikoak eta egungoak nahasten dituzte, eta txandaka edota elkarrekin aritzen dira.

Oraingoan, emanaldia Dobera Euskara Elkarte laguntzeko egingo dute, eta horrexegatik, sarrerak Doberan bertan erosi daitezke dagoeneko. 7 euroan daude salgai: gaurtik asteartera, bazkideek izango dute lehentasuna, eta denentzako irekiko da salmenta gero. Biterin ere erosi ahal izango dira emanaldiaren egunean, geratzen badira.

Jaialdia, puntako bertsolari eta gai-jartzaileekin

Urteko azken emanaldia, areto baten epelean egingo dena, abenduko ohiko bertso-jaialdia izango da. Abenduaren 28an izango da, iluntzeko 19:00etan hasita, Biteri kultur etxean. Sarrerak, urtero bezala, emanaldiaren aurretik erosi ahal izango dira Biterin bertan.

Bertsotan ariko direnak sei izango dira, eta ohi bezala, tartean izango dira Hernaniko Bertso Eskolako kideak; horrela, Eli Pagolak eta Eñaut Martikorenak kantatuko dituzte bertsoak, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Alaia Martin eta Oihana Igua-



Oier Iurramendi eta Agin Laburu, joan den urteko Bertsolatan.

ranekin batera. Oholtza gainean izango da beste hernaniar bat ere: Maialen Lujanbio ariko da gai-jartzaile lanetan.

Urteari hasiera, tabernetan
Bertsotan alaituko du urte bu-

kaera, Bertsolatak; eta bertso-tan hasiko dute urte berria ere. Izan ere, bertso eskolako kideek gogorarazi dute, San Sebastian bezperan egingo dutela Tabernetako Bertsolari Txapelketa, ohi bezala, Garinen. **K**

BERTSOLATA 2019

Abenduak 20

18:30 Bertso-poteoa kalean zehar, bertsolari desberdinekin.

Abenduak 24

Olentzerorekin, baserriz baseri.

Abenduak 26

19:00 'Auskalo zeinek jarriak' bertso jarrien emanaldia, Eñaut eta Unai Agirre anaiekin, Biterin. Sarrerak salgai 7 euroan, Dobera Euskara Elkarte. Asteartera arte, bazkideek lehentasuna.

Abenduak 28

19:00 Bertso-jaialdia, Biterin. Bertsolariak: Anfon Egaña, Amets Arzallus, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Eñaut Martikorena eta Eli Pagola. Gai-jartzailea: Maialen Lujanbio. Sarrerak egunean bertan salduko dira, Biterin, emanaldiaren aurretik.

Abenduak 31

17:00 Urte-zaharreko erronda, Ohitura Zaharrak abesbatzarekin batean, kaxkoan barrena, San-diusterrin abestu ondoren.

Urte berri on!

IPINTZA sagardotegia

Santio Zaharra 12. Ipintza baserria **ASTIGARRAGA**

688 811 724 | ipintza@ipintza.com

gse Asesores

Zorionak eta urte berri on!

Gudarien plaza, 13. Hernani
Telefona: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

AMAIA

OKINDEGIA - GOZOTEGIA

Amalia Vitzzi Anton

Zorionak eta urte berri on!!

Kale Nagusia - GOIZUETA 948 51 42 42

iparra sukaldeak

Ibarluze poligonoa, 7. Hernani
www.iparrasukaldeak.com
t. 943 556 760

Zorionak eta Urte Berri on!

Eguberri on!!

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbil: 665 735 224
20120 Hernani

IRUBIDE JATETXEA

Zorionak eta urte berri on!

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

Lehenengo urteurrena aurtengoa, bailara tonuan mantentzeko

Hernaniko *Kantuban* gazte-abesbatzak eta Astigarragako *Eragiyok* gizonezkoen koruak aurreko urteko gabonetan debutatu zuten, biek Errenteriko Gabonetako Koru Lehiaketan. *Eragiyok*ek lehenengo saria eskuratu zuen, eta *Kantuban*ek hirugarrena, eta aurten ere abenduaren 28ko lehiaketara aurkezteko asmotan dira bi abesbatzak.

«Hau izan da lehenengo urtebetetzea, baino asko etorriko direnaren sentsazioa dugu, ate asko ireki zaizkigu eta»

Urtebete honetako balantze oso positiboa egin dute Javier Oyarzun, Ramon Sanchez eta Eneko Amundarain kideek. 10 kontzertu eman dituzte dagoeneko, eta 35 kantu baino gehiagoko errepertorio zabala sortu dute.

ASTIGARRAGA ERAGIYOK

Zer dela eta erabaki zenuten gizonezkoen abesbatza bat sortzea?

Javier Oyarzun: Lagun talde bat bildu ginen, proiektu berri bat sortzeko asmoa genuenak. Argi xamar genuen zeintzuk ziren benetan landu nahi genituen esparruak: bai euskal konpositoreak eta baita kantatzeko koruaren soinuak, kantatzeko modua, tinbrea eta kolorea.

Bereizgarria izango zen zer-bait sortu nahi genuen. Talde gazteen artean horrelako errepertorioa edo horrelako kantaera lantzeko hutsune bat sortzen ari zela ikusten genuen.

Ramon Sanchez: Ahots gra-been koru bat egin nahi genuen eta hemengo kantaera landu; betiko errepertorioa, hemengo kantatzeko modua. Koru gazte bat sortu nahi genuen eta handik eta hemendik juntatu ginen. Abesten dabilizan pertsona gazteetatik inork ez du

aukeratu gure bidea eta guk hori landu eta hori kantatu nahi genuen.

Gizonezkoen abesbatza errepertorio oso zabala dago eta gero eta talde gutxiago daude hori lantzen dutenak edo horretan jarduten dutenak maila batekin. Badaude gauza exigenteak eta zailak ahots aldetik, eta geroz eta gutxiago dira hori lantzen duten koruak.

Nola baloratuko zenukete lehenengo urteko eboluzioa?

R.S: Urtebeteko balantzea oso ona da gure aldetik. Hasieran gure buruari helburu batzuk jarri genizkion, zer egingo genuen jakin gabe. Era askotako emanaldiak eman ditugu, eta errepertorio handia lantzea lortu dugu hortaz urtebete honetako lanarekin oso gustura gaude.

Hau izan da lehenengo urtebetetzea, baino asko etorriko direnaren sentsazioa dugu, ate asko ireki zaizkigu eta.

J.O: Urtebete honetan hazi egin



Eragiyok Abesbatzak astelehenero entsaiatzen du Astigarragako Kultur Etxean, 20:00etatik 22:00etara.

gara, kopuru aldetik ere bai. Jendea erakarri eta gureganatu dugu, hasieran, hazia 8 bat kiderekin sortu genuen eta orain 12-18 bat lagun biltzen gara.

Errepertorioa ere asko zabaldu dugu, sortu ginenean ez genuen espero urte baten 10 emanaldi emango genituenik, baino Errenteriko lehiaketa irabazteak ate asko ireki dizkigu. Sari horrekin dagoeneko ez gara erdipurdiko batzuk esan dezakegu, 3-4 ahotsetara kantatutako errepertorio potentia

sortu dugu guztira 35 abesti exijenterekin.

Koru mixtoa bihurtzeko asmorik baduzue?


R.S: Koru mixto gehiago ez dira behar, herri guztietan dago abesbatza mixto bat eta dauden talde potenteenak ere mixtoak dira, hori oso babestua dago baino etorkizun batean gus-tatuko litzaiguke haiekin elkarlanean kontzerturen batean edo aritzea.

J.O: Gizartearen beste esparru

batzuetan kate begi ahulena dena, kasu honetan alderantziz gertatzen da. Gizonezkoak dira kantugintzan ahulenak eta horretan gure alea jarri badezakegu, aurrera egingo dugu.

Aurtengo Gabonetako Lehiaketan saririk espero duzue?

Eneko Amundarain: Lehiaketa batera aurkeztzen zaren momentutik, beti joan behar zara irabazteko asmotan. Aurten ere uste dut saria errepikatu daitekeela, baditugu aukerak noski. **K**



mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak

Zorionak
eta urte berri on!

Tel. 649 846 422 - 20.120 HERNANI

EDARITEGIA

JOMER

WASHING MACHINE

Kale Nagusia, 7
Tel.: 943 55 00 32

Nekane
Centro de belleza Edergintza

Antziola 4
Tel.: 943 24 32 53

www.centrodebellezanekane.com

ZURE LASER ZENTROA
Doako diagnostikoa!

LASER PLATAFORMA

Laser Alejandrita

LightSheer® DESIRE™ diodoa

• 20 urtetako esperientzia dugu depilaziorako laser teknologian lider mundiala den teknologian.
• Minik gabea.

OPARITU EDERTASUNA!
Gabonetan eskaintza bereziak: gorputz eta aurpegirako tratamenduak...

Informazio gehiagorako:
943 24 32 53 edo
688 605 849



«Herriko gainontzeko koruak helduen abesbatzak dira, eta gazte jendeak gazte-koru batekin bat egiteko aukera izatea nahi genuen»

Kantuban Abesbatzak ere aurten bete du lehenengo urtemuga, eta dagoeneko hurrengo urteko proiektuetara begira daude kideak. Errenteriko Gabonetako Lehiaketa izango da taldearen hurrengo erronka.

HERNANI KANTUBAN

Aurreko urtean sortutako Herriko gazte-abiesbatza mistoa 16 partaidek osatzen dute egun; Orereta, Zestoa, Donostia eta Arizkunik etorritako kideak barne eta Urumea Herri Guneko musika gelan entsaiatzen dute asteartero, 18:30etatik 20:00etara Alain Ayerdi zuzendariaren gidaritzapean.

Partaide berriak nahi dituztela, eta batez ere abestera animatzeko mutilen bila dabiltzala azaldu dute besteak beste, Leire Gofñi, Edurne Garcia, Itxaso Lekuona eta Amañur Tranche korukideek.

Nola sortu zen *Kantuban*?

Leire Gofñi: Musika Eskolako abesbatzan ibilitakoak gara Kantubaneko partaide gehienak. Txikitik koru batean abesteko Musika Eskolara joan behar genuen eta heldutzean iritsi da puntu bat Musika Eskolara joatea ezinezkoa izan zaigula askori, ordutegiagatik, nagusiak sentitzeagatik edo dena delakoagatik.

Batzuk pixkanaka koru hori uzten joan ginen eta parrandetan edo kalean topatzen ginen bakoitzean aipatzen genuen gazte-koru bat osatzearen beharra. Elkar ikusten ginenero komentatzen genuen berdina, eta azkenean taldetxo bat elkarrekin eta lanean hasi ginen.

Zein helbururekin animatu zineten abesbatza berria sortzera?

Edurne Garcia: Betidanik gustatu zaigun horretan jarduteko

eta elkarrekin ondo pasatzeko helburuarekin sortu genuen korua, baina batez ere gazte-abiesbatza bat sortzeko helburuarekin.

Musika Eskola askotan umeetatik datorren zerbaitekin lotzen dugu, eta herriko gainontzeko koruak helduen abesbatzak dira. Hortaz, abestera animatu nahi duen gazte jendeak gazte-koru batekin bat egiteko aukera izan zezan nahi genuen.

Nondik dator izena?

Itxaso Lekuona: Hasieran *Txotxote feminista* izena okurritu zitzaigun, Sagardotegian Otxote bezala abestu behar genuelako eta Imanol izan ezik, denak neskak ginelako. Baina gero *Kantuban* bururatu zitzaigun eta gehiago gustatu zitzaigun. **L.G:** Hitzak berak dioten bezala, kantuan aritzeko aditzari egiten dio erreferentzia baina "Kantuban" jarri ordez, adineko jendeak dioten kale hizkeran "B" hori gehitzea erabaki genuen, berezi egin nahian eta horrela sortu zen *Kantuban*.

Zer du *Kantuban*ek, beste koruek ez dutena?

I.L: Hasteko gu, eta gero guk koruari ematen diogun malgutasuna. Gure arteko konfiantzazko giro hori da abesbatza berezi egiten duena, gure ustetan. Lagunartean bageunde bezala sentitzen gara denok, eta horrek lanerako giroan asko laguntzen du. Libretik sortutako zerbaite da, eta horrek askatasun handia ematen dizu.

E.G: Askotan ikusten da koru batzuetan hierarkia edo ber-



Kantubaneko kideek gazteei beraiekin bat egiteko gonbita luzatzen diete, batez ere mutilen falta dutela azpimarratuz.

tikaltasun bat ematen dela zuzendariaren eta gainerako kideen artean, eta guk horrekin hautsi nahi genuen.

Gurea ez da batere bertikala, guztiz horizontala dela esango genuke eta horren adibide da *Kantuban*ek duen taldean jarduteko era; talde lanean funtzionatzen dugu, batzuk inprimatzeaz arduratzen dira, beste batzuk abestiak euskaratzeaz, beste batzuk partiturrak bilatzeaz, talde lana oro har. Abestien aukeraketan ere berdin, zuzendariaren proposamenez gain beste abesti asko gutako edonori burura etortzekoak dira.

Oraindik ere *Kantuban*ekin bat egiteko ateak zabalik daude?

I.L: Noski, eta beti egongo dira. Ez diogu inori ezetz esango. Umorea, abesteko gogoia eta ondo pasatzeko asmotan datorrenak *Kantuban*en lekua izango du, ziur.

E.G: Gazte korua garen heinean, gazte jendea animatzea gustatuko litzaiguke. Ez dugu adin tarterik finkatu, gaztea zer den definitzea konplexua baita, bai-

na norberak ikusiko du herriko zein korutan ikusten duen ego kiago bere burua. Gure artean ikusten badute euren burua, ongietorriak izango dira beti. **L.G:** Ez dugu gurekin bat egiteko baldintzarik jartzen, baina egia da koruko kide guztiek hilabetean 15 euroko kuota bat ordaintzen dugula, gastuak ordaindu eta batez ere konprometua hartzeko.

Aurreko urteko Errenteriko Gabonetako Lehiaketan hirugarren postua eskuratu zenuten, espero zenuten hala korik?

L.G: Ez, inondik inora ere! Ez genuen batere espero, ez guk ez bertan zegoen inork. Xelebrea izan zen, lehiaketa horretan parte hartzen genuen lehen aldian zenez ez genekien oso ondo nola funtzionatzen zuen sari banaketak. Dietak ordaintzeko izen zerrenda bat ematen hasi ziren, baina *Kantuban*en izena ez genuen entzun. Beranduago zerbaite esango zigutelakoan edo geunden, eta gure atzekoek esan behar izan ziguten, gure izena zerrendan ez egoteak

lehenengo hiru sarietako bat eskuratuko genuela esan nahi zuela.

Gu bitartean, gure artean barrez ari ginen ea gutako zein aterako zen dieten sobreen bila. Sorpresa izugarria hartu genuen denek.

Amañur Tranche: Inolako presiorik gabe, disfrutatzea joan ginen eta ondo pasatzera. Nik uste dut hori asko nabaritu zitzaigula. Oso gustura abestu genuen, eta egindakoaz arto geratu ginen.

Aurten espero duzue saririk?

L.G: Oso abesbatza onak joaten dira bertara eta lehenengo postua eskuratzea zaila dagoen arren, egia da beste bi postuetan lekutxo bat egiteko esperantza txikia hor dugu.

E.G: Dena den, dagoeneko ez gara berriak, hortaz ez dugu saririk espero. Oraingoan ez dugu aurreko urtean genuen nobedarearen grazia puntu hori, baina aurten perfektio handiarekin goaz, oso ondo prestatuak, beti ere disfrutatu eta ondo pasatzeko asmotan. **K**

apaindura
OIHALA
hogar

Zorionak eta eguberri on!

Elkano, 11
Tel. 943 55 64 87 **HERNANI**

OINDI

taberna

ONDO PASA GABONETAN!

Nagusia, 25
Tel.: 943 55 75 09

Mahuka

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

ANDRE KALEA, 28 BEHEA
HERNANI
943 333 639

RIOJA TABERNA
Kale Nagusia, 6. Hernani

2019 urtea ere pasa zaigu...
Urte berri on guztioi!

Gabonetako argiak Urumea Bailaran

Gabonetako argiak: beharrezkoak giroa pizteko?

Neguko oporrekin batera ospatzen ditugun Gabonak gero eta gertuago daude, eta dagoeneko nabaria da Urumea Bailarako kaleetan. Horien islada dira Gabonetako argiak; horiek eztabaida-iturri izan dira hemen ere.

URUMEA GABONETAKO ARGIAK

Gabonak gertu izatearen ikur dira, urtero, txoko guztietan jartzen dituzten argiak ere. Ospetsua egin da, dudarik gabe, azken urteetan Vigoko hiriak (Galizia) hartu duen bidea; bertako Alkateak adierazi izan du, «munduko gabonetako argirik onenak» dituela Vigok. Ospe haundia lortu badu ere, eztabaidarako tartea ere ireki da: Gabonetako argiak beharrezkoak dira, bai ala ez?

Urumea Bailarako herri guztietan, argiak

Krisialdi garaiarekin Urumea bailarako kale eta txoko batzuk itzali baziren ere, egun herri guztiek daukate, behintzat, argi-punturen bat, bakoitzaren ahalmenaren baitakoa.

Aranok jartzen ditu argi gu-

Hernaniren kasuan, aldiz, Udalaren eta Berriak merkataria eta ostalarien arteko elkarlanari esker jartzen dituzte.

txien, «udaletxeko balkoiean gutxi batzuk», azaldu dute. Eta gainontzeko dekorazioa herritarren esku geratzen da.

Goizuetan herrian zehar jartzen ditu Udalak, baita Astigarragan ere. Hau da, tokiko erakundeak ordaintzen ditu bai argiak berak, baita mantenu-gastuak ere.

Hernaniren kasuan, aldiz, Udalaren eta Berriak merkataria eta ostalarien arteko elkarlanari esker jartzen dituzte.

12.000 euro inguru, Hernani eta Astigarragako udalek Hernanin, elkarlan horri esker, gastuak partekatu egiten dituzte, Udalak eta Berriak elkarteak, biek baieztatu bezala. Elkarteak

alokatzen ditu herriko kaleetan zehar jartzen diren argi gehienak, eta horretarako, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasotzen dute. 12.217,69 euro, BEZ barne, gastatzen dituzte alokairuan. Hernaniko enpresa bati alokatzen zaizkio, eta ondorengo txokotan jartzen dituzte: Andre kale, Kale Nagusia, Urbieta kalea, Elkanoko goiko aldea,

Txirrita, Latsunbe, Antziola, Plaza eta Zinkoenea.

Udalak, aldiz, instalazioa eta horiek kentzea, eta mantenua ordaintzen ditu. Hain zuzen, 11.374 euro, BEZ barne, bideratzen ditu horretara.

Horrez gain, Udalak badi-tu bereak diren argiak, aspaldi erosi zituenak, eta horiek jartzen ditu gainontzeko tokietan.



Azaroaren 12an jarri zituzten Gabonetako argiak Hernanin.

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

ondo pasa gabonetan!

ANTZIOLA
OKINDEGIA

PODOLOGIA
NEREA URDALLETA GUERRA

ONDO IBILI
GABONETAN

943 55 60 13
KALE NAGUSIA 16,
ASTIGARRAGA

Zorionak eta Urte Berri On!

DORRONSORO
OKINDEGIA

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jaiegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jaiegunetan: 7:00-14:00

TILIN TOLON
MAITE

Ondo pasa jaiak eta
urte Berri on!!!

TXIRRITA KALEA, 10. HERNANI Telf: 943 55 56 94

Eguberri on!

PINEDA

HARATEGIA

Andre kalea, 32. Hernani
943 55 16 43

UKERDI

mertzeria
lentzeria
hariak
artileak

Playtex - Avel - Dim

Emakume eta gizonentzako
azkipo arropa eta pijamak

EGUBERRI ON!

Kale Nagusia, 51 - 943 551 322

Xarmant

Ileapaindegia
Estetika Zentroa

Eguberri On!!!

Onkileaga 2. Tlf. 943 33 59 08

Astigarragan, aldiz, guztiak alokatzen dituzte, eta horretara, 12.993,96 euro gehi BEZ bideratzen dituzte. Horiek dira, hain zuzen, herrian zehar jartzen dituztenak: Udaletxean, Kale nagusian, Barandiaran plazan, Apeztegi plazan, Sagardoetxea-kultur etxean, Erribera plazan, Mundarro plazan, Ergobian, Pelotari kaleko biribilgunean, Lekueder biribilgunean, Santiagomendin eta Landarbason. Kasu honetan, Ximenez Catalunya S.L.U enpresa kontratatzen da.

«Herria apaintzea eta Gabonetako giroa piztea», helburu

Berriak merkataria eta ostalari elkarteak azaldu duenez, «aurrekontu baten baitan hautatzen dugu zer jarri, eta helburua izaten da ahalik eta iluminazio gehien lortzea». Aipatzen dute, gainera, «argiak oso garestiak» direla.

Hernanikoak abenduaren 5ean piztu zituzten, eta Berriak elkarteak aprobetxatu zuen Gabonetako kanpainari hasiera emateko. Gabonetako argiek helburu bikoitza dutela adierazi dute: «batetik, herria apaintzea; eta bestetik, Gabonetako giroa piztea». Horri esker, «herriarrei adierazten zaie dendak prest daudela Gabonetarako».

Eta horrek nolabaiteko giro aldaketa dakar: «giro horren bueltan jendea animatu egin da; giroa ezberdina da, eta animoa ere bai, kontsumoaren ikuspuntutik». Dena den, onartzen dute: «nahiz eta merkataritzarentzat urteko garai garrantzitsuenetakoa izan, ez da lehen izan zena, erabat jaitsi dira salmentak».

Horri eustea da, besteak beste, argien helburua, beste hainbat ekintzekin batera: musika, erakuslehioen lehiaketa...

Horrez gain, Gabonetako argiek beste funtzio bat betetzen dutela ere onartzen du Berriak elkarteak: «Hernaniko Kaxkoaren arazoa da ez dagoela oso iluminatuta, eta neguan, oso azkar iluntzen du». Horri aurre egiteko, erakuslehoiak iluminatzeari ekin zioten merkataria eta ostalariak

Astigarragan, argi guztiak alokatzen dituzte, eta horretara, 12.993,96 euro gehi BEZ bideratzen dituzte, horretara.

duela 3-4 urte. Baina aurreko urtean apostu sendoa egitea erabaki zuten, argitasun-beharrak asetzeko: «eta horregatik, batez ere, bizilagunek zoriondu gaituzte». Horregatik, bide berdina jarraitzea erabaki dugu.

Herriko merkataritza laguntzeko, Udalak

Nahiz eta Berriak elkarteak onartzen duen argien eragina zenbatekoa den neurtzea «oso zaila» dela, «herriarrek herriko dendetan erostea» sustatu dezakeela diote. Hori kontuan hartuta, «herriko merkataritza laguntzeko den heinean», Hernaniko Udalak laguntzea erabaki du.

Laguntza horretatik sortu da bien arteko elkarlana, ardura banaketan bitartez.

Eztabaida piztuta, Goizuetan eta Astigarragan

Urumea bailaran, aldiz, badira Gabonetako argien eraginkortasuna zalantzan jarri dituzten Udalak ere.

Astigarragako izan zen aurrenekoa. Duela bi legegintzaldi, 2011-2015 epealdian, EH Bilduko Andoni Gartzia alkate zela egin zen aurreneko hausnarketa: «orduan erabaki zen herria beste modu batean apaintzea».

Ondoren, 2015-2019 legegintzaldian, EAJ-PNV Udal gobernuan zela, berriro ere egin zuten argien aldeko apustua.

Legegintzaldi berria hasi berritan, EH Bilduko Xabier Urdangarin buru duen udal gobernuari «bat-batean» etorri zitzaion «argiak jartzeko erabakia». Hori horrela, «hausnartzeko astirik izan gabe, aurreko legegintzal-



Gabon Apartsuekin hasi ziren Gabon festak atzo Astigarragan giroa piztuz.

Goizuetan, «aurreko urtean inkesta bat burutu zen herriarren artean, argiak jarri ala ez erabakitzeko»; goizuetarren %80ak argiak jartzearen alde egin zuten.

dian bezala egitea erabaki genuen», onartu dute Udal Gobernutik.

Hemendik aurrera, aldiz, «hurrengo urterako denboraz gaia landu nahi dugu».

Goizuetan ere landu dute gaia, azkeneko urteetan. Aurreko legegintzaldian, EH Bilduko Unai Loiarte alkate zela, ekin zioten hausnarketari: «Udalak kezka zuen, argiek suposatzen zuten gastuak direla-eta».

Horregatik, «aurreko urtean inkesta bat burutu zen herriarren artean, argiak jarri ala

Astigarragako zein Goizuetako Udalek bere garaian azaleratutako kezkek bat egiten dute azkenaldian talde ekologista batzuek kritikatu izan dutenarekin.

ez erabakitzeko». Goizuetarren %80ak Gabonetako argiak jartzearen alde egin zuten. Hortaz, herriarren eskariari jarraituz, eutsi egin diote Gabonetako argiekin Goizuetako kaleak apaintzeari.

Energia-kontsumo gehiegi egitea, kritika

Astigarragako zein Goizuetako Udalek bere garaian azaleratutako kezkek bat egiten dute eztabaida bolo-bolo dagoen honetan talde ekologistek kritikatu izan dutenarekin.

Haiek, besteak beste, bi arazo aipatu izan dituzte eztabaida honen bueltan: energia-kontsumo eta energia-baliabideen erabilera haundia suposatzen dutelako, eta bestetik, gastu ekonomikoa ere, gehiegizkoa dutelako.

Herriarrek Gabonetako giroan murgiltzea, elkartearen asmoa

Moduak edozein direla ere, Gabonetako giroan murgiltzea da Urumea Bailarako herri guztien asmoa, herriarrek ere hori senti dezaten. Eta hori kaleetan ere islatzeko, dekorazio bereziak jartzeaz gain, herrian ekintza bereziak egin dituzte.

Horien artean dira, hain zuzen, Hernaniko merkataria eta ostalariak dagoeneko hasi duten erakuslehioen lehiaketa edota Astigarragako Astiko elkarteak, beste hainbat eragileekin elkarlanean atzo egindako Gabon Apartsuen Jaia. Izan ere, eztabaida alde batera utzita, eta argiak jarrita edo argirik gabe, aurtengo Gabonak hemen daude! **K**

ESPECIALISTAS EN MARISCO

MARISCOS HERNANI

Eguberri on!

Javier Juanisti
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Zorionak eta Urte Berri On!

www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel.: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

Astigarraga
HERNANI (Gipuzkoa)

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

ISABEL

Janari denda

COVIRAN

Zorionak eta urte berri on!

Tomas Alba, 11. Astigarraga Telf: 943 55 23 67

Aukera bikoitza Kutxa Ekogunean, etxeko txikienek eta familiek «hibernatu» ez dezaten

Abenduaren 23an hasi eta urtarrilaren 3ra arte antolatu ditu Negulekuak Kutxa Ekoguneak. Horrez gain, ekintza bereziak ere egingo ditu eskoletako oporrak iraun bitartean.

URUMEA KUTXA EKOONEA

Naturaren zainketan eta kontzientziazioan «hitzetatik ekin-tzetara» pasatzeko beste aukera bat eskainiko du Kutxa Ekoguneak urteko azkeneko eta hasierako asteetan, hots, Gabonetan zehar.

Bereziki, bi ekintza nabarmendu dituzte Kutxa Ekoguneako arduradunek: batetik, Negulekuak; eta bestetik, Haur Parkeko ekintza bereziak.

Negulekuetarako, azkeneko deia aste honetan

«Kutxa Ekogunean ez dugu hibernatzen!» lelopean egingo dituzte aurreko Negulekuak, hau da, «neguko udalekuak». Ohi bezala, 3 eta 11 urte bitarteko gaztetxoentzat zuzenduta izango da: «neguan natura lozorroan sartzen da. Animaliak gordelekuetan sartzen dira eta lasaitasuna da nagusi. Baina neguan ere asko dugu ikasteko», diote Kutxa Ekogunetik.

Ekintza mordoa egingo dituzte, horretarako. «Goizero, kabietan hasiko dugu eguna, eta hibernaziotik ateratzeko eta eguna goxo-goxo hasteko, ipuin bat kontatuko diegu», azaldu dute Kutxa Ekogunetik. Hortaz, horrekin ekingo diote egunari, eta gainerako ekintzek emango diote jarraipena: tailer bereziak egingo dituzte, jolasak, baita ekintza bereziak ere, tartean, Gipuzkoa Solidarioaren bisita jasoko dute, Gabonetako kontsumo ohiturei buruz hausnartzeko, eta neguko baratzean oinarritutako sukaldaritza tailerra egingo dute, baita ere.

Hain zuzen, bi asterako ekin-

Abenduaren 22 eta 23an 'Adoptatutako animalien maitasun istorioak' kontatuko dituzte zortzi testigantzen bitartez.

tzak antolatu dituzte. Abenduaren 23an emango zaie hasiera, eta urtarrilaren 3ra bitarte luzatuko dira. Bi txandetan egingo dute: aurrenekoa, abenduaren 23, 24, 26 eta 27an egingo dute; eta bigarrena, aldiz, abenduaren 30 eta 31n, eta urtarrilaren 2 eta 3an.

Goizeko 09:30etan hasi eta eguerdiko 13:30ak bitarte izango da, nahiz eta zaintza zerbitzuari eta bazkariari esker luzatu ahal izango den.

Izena eman nahi duenak oraindik badauka aukera, hilaren 18ra arte egin ahal izango da. Informazio gehiagorako: www.ekogunea.eus.

Publiko osoarentzat ekintza bereziak, baita ere

Negulekuez gain, Gabonetan zehar ere ekintza bereziak izango dira Haur Parkean: «Gabonekin baino, neguarekin lotura duten ekintzak izango dira», diote.

Sei egun berezi izango dituzte, tartean. Abenduaren 21ean ipuin kontaketa izango da, goizeko 11:30etan: *Zein koloretakoa da musu bat?*.



Animaliek neguari nola aurre egiten dioten ikusiko dute hurrek, besteak beste, Negulekuetan. Argazkia: Kutxa Ekogunea.

Ondoren, abenduaren 22 eta 23an bina jardura egingo dituzte. Goizean, *Adoptatutako animalien maitasun istorioak* kontatuko dituzte: «zortzi testigantza izango ditugu. Jabeen eta txakurren arteko maitasun istorioak kontatuko dituzte, animaliak ere bertan direla», diote arduradunek. Arratsaldean, Olentzeroren lagun berri-tsuen bisita jasoko dute Haur Parkera bertaratzen direnek: «Olentzerori mezuren bat eman nahi diotenentzat».

Inuxente eguna ospatuko dute abenduaren 28an, Kutxa Ekogunean ohitura den bezala, eta ipuin antzeztua izango dute hurrengo egunean.

Eta Gabonak bukatzeko, Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan egindako ekintza errepikatuko dute urtarrilaren 2an: *Euskal Karaokea*.

Bien bitartean, Gabonetan zehar Trukegunea izango dute martxan, objektuak era librean utzi eta hartzeko, ordainketarik gabe. Hurrek erabiltzen ez dituzten jostailuei bigarren bizitza bat ematea da helburua. **K**

GABONAK KUTXA EKOONEAN

Abenduak 21

11:30 Ipuin kontaketa: *'Zein koloretakoa da musu bat?'*.

Abenduak 22 eta 23

11:00-13:00 *'Adoptatutako animalien maitasun istorioak'*.

17:00-18:30 Dinamizazio-ekintzak: *'Olentzeroren lagun berri-tsua'*.

Abenduak 28

11:30-13:00/16:00-18:30 Dinamizazio-ekintzak: *'Inuxente eguna'*.

Abenduak 29

12:00-13:00 Ipuin antzeztua: *'Grufaloren alaba'*.

Urtarrilak 2

16:30-18:30 Dinamizazio-ekintza: *'Euskal karaokea'*.

NEGULEKUAK

Abenduak 23-urtarrilak 3, **09:30-13:30 bitartean**.

Haur zaintza zerbitzua eta bazkaria ere izango dira, aukeran.

TRUKEGUNEAK

Ekarri trukatzeko duzun hori.

HAUR PARKEA

Ordutegi berezia izango du abenduaren 20an hasi eta urtarrilaren 6ra bitarte: goizez, 10:30-14:00 bitarte; eta arratsaldez, 16:30-20:00 bitarte. Abenduaren 24 eta 31n goizez bakarrik irekiko dute; eta abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, aldiz, itxi egingo dute.



Iturriaga, 3 • Tel. 943 55 65 64
20120 HERNANI

**JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

**ARRATSALDEZ IREKIKO DUGU LARUNBAT HAUETAN:
ABENDUAK 21, 28 eta URTARRILAK 4**

Din dan don, Din dan don,
guztioi Mila Zorion,
Izan dezagun Eguberri
eta Urte Berri On!

Olentzeroren eskutitzerako aukera paregabea!!!

HAURRAK

TXORI TXIKIA ETA KROKODILOA
(2018)
Ipuin senegaldarra

15€, bazkideak 12€




MOZOLOAREN BIDEA
(2016)
Ipuin armeniarra

10€



ZOZOMIKOTEAK
(2015)
Urrietako artzain batek kontatuta...

10€



OILAR TXIKIA
(2017)
Margotu, marraztu, pegatinak itsatsi, irakurri eta idatzi!

2€



HELDUAK

AXERI DANTZA
(2018)
3 filma + parte hartzaileekin elkarriketak. DVDa

10€ (Bazkideak 5€)



BURBUNAK ETA ETSAYAK
(2015)
Hernaniko natura eta ahozko

5€



HESOLA
(2017)
Hesolaren kanta komikian bihurtuta

2€



ALDABA JOKA
(2003)
Hernani; XX.mendeko ahozko historia txikia

2€



ERRITMOA, KAZETARIAREN BATUTA
(2012)
Kronika

2€



DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

Larramendi 11 behe,
Hernani
943 33 27 99
dobera@dobera.eus



Urumeako ur-ttikitan barrena

Latxe

ORAIN ARTEKO LATXE ALDIZKARIAK ESKURATZEKO ESKAINTZA BEREZIA, 15 EUROTAN!
(12 ale)





Urte berriari hasiera indartsua emateko, maldan gora Adarrara

Urteberri egunean Adarra mendira igotzeko dagoen ohitura aspalditik datorren tradizioa da. Urtero bailarako jende gehiagok egiten du bat urte berria gogotsu hasteko ekimenarekin.

URUMEA URTEBERRI EGUNA

XX.mende hasieran, Fortuna Donostiarrako mendizale talde batek urteberri egunean Adarrara igotzeko ohitura hartu zuen, eta 1924. urtean antolatu zuten lehen aldiz urteberriko adarrako mendi-irteera. Ordutik aurrera, urtero-urtero bailarako herritar askok horretarako erreserbatuta duten eguna izaten da urtarilaren 1a, urte berria indarrez hasteko.



Goizeko 09:30etatik 11:00etara bitartean biltzen da jende gehien, nahiz eta goizago edo beranduago heltzen denik ere badagoen.

Mendeurrena, gertu

1924. urtean antolatu zuten lehen aldiz urteberriko Adarrako mendi-irteera Fortuna Donostiarrako mendizale taldeak, baina ohitura honen jaiotze data zehatza ezezaguna da. Ofizialki antolatu gabeko ekimena ez zenean ere mendizale talde horretan bazegoelako urte berriari

hasiera emateko ohitura.

Ekimenaren lehenengo markadetan meza ere izaten zen gailurrera iritsi orduko, Balentxi apaizaren eskutik, baina dagoeneko ohitura hori goizeko hamaiketako brindisak ordezkatu du.

Astebeteko lan-prestaketak

Fortuna Donostiarrako mendizale talde batek antolatutako ekimena izan zen arren, 1974. urtetik aurrera, Andoaingo Euskalduna Mendigoizale Taldea arduratzen da ohitura hau mantentzeaz.

Abenduaren 28an hasten dituzte urteberri eguneko igoerarako prestaketak, aurretik antolamendu-lan handia eskatzen duen ekimena baita.

Igoeraren ondoren eskaintzen den hamaiketako aurrez

prestatu behar izaten denez baita ere, inozente egunetik hasita astebetez luzatzen dira prestaketa lanak.

Hamaiketakoa, musutruk

Urteberriko Adarrako igoera ez litzateke berdina izango, hel mugara iritsi orduko ez balego salda eta txorizo beroa hamaiketakorako.

Goizean goizetik hasten dira mendizaleak Adarra igotzen, baina normalean 09:30etatik 11:00etara izaten dira mendizale gehien biltzen diren puntako orduak, norberak bere erritmoa jarraituz. Behin tontorrera iritsita, hamaiketakoa jasotzeko sortzen den ilara ikusgarria izaten da, Andoaingo Euskalduna Mendigoizale Taldeak hamaiketako eskaintzen baitie mendizale guztiei, dohanik.

Hernani, Astigarraga, Urnieta eta Andoain inguruko mendizaleak izaten dira mendi buelta honetara animatzen direnak gehien bat, baina Donostia, Tolosa, Usurbil, Billabona eta Oreretakoak ere hurbildu izan dira egun honetan Adarrako mendi magalera.

Iragarpen meteorologikoei, enbarazurik ez

Adarrara igotzeko adorerik eza oso kasu gutxitan eman da bailaran. 92 eta 93 urteetan ere urteberriari ongiatorria egitera animatu ziren mendizaleek ere ez zuten amorarik eman. Hotza hezurretaraino sartzen zen urte horietakoak izan zirela, eta bidean izotz handia zegoela ere gogoan dute askok.

Azken urteetan izandako

eguraldirik okerrenak ere gainditu dituztenez, edozein iragarpen meteorologikoei aurre egiteko prest daude mendizale guztiak, urteroko zita horri uko egiteko aukera erabat baztertuz.

Partehartze jendetsua

Urtetik urtera partehartzaileen kopurua hazten doa, dagoeneko oso gutxi izango baitira ohitura honen berri ez duten herritarrak. Adin guztietako jendeak

TITAN-ETXE TABERNA

GABON JAI ZORIONTSUAK!

Larramendi, 15
943 55 00 46

Euskal Pizza

943 33 33 73
Larramendi, 3. Hernani

2x1

Lokalean bertan hartzeko

Ondo pasa Gabonak!

Zorionak eta urte berri on!

GUINEA

GURE ETA ZURE TOPAGUENA

Argarain, 2. Hernani
943 33 25 29

parte hartzen duen ekimena da, urtero haur, gazte eta helduen arteko topagunea izaten baita eta normalean Hernani, Urnieta eta Andoaingo herritarrak izaten dira bertara hurbiltzen direnak.

Denetik izaten da, normalean mendira joateko ohitura dutenek men egiten diote tradizio honi, baina egun horretan bakarrik igotzeko ohitura hartu dutenak ere izaten dira tartean. Badira urte zaharreko parran-

datik lehenxeago etxeratzen direnak, biharamunean dena emateko asmotan, baina badira baita ere parranda Adarrako igoerarekin amaitzen dutenak.

Azken urteetan, orotara 2.000 lagun inguru elkartu dira ziman, salda emateko banatzen diren edalontziekin ateratako kalkuluen arabera, eta dirudienez, urte gehiagotan tinko mantenduko den tradizioa izango da. **K**



Garai batean debalde ematen zen hamaiketakoa oraindik ere mantentzen da.



Fortuna Donostiarrako mendizale batzuek bihurtu zuten euren ekimena, bailara osoko ohituran.



Egoera meteorologiko gogorrenek ere ez dute lortu ohitura desagerraraztea.



Egun erabiltzen den denda, lehenengo urteetan erabiltzen zenaren antzerakoa da.

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Zorionak eta urte berri on!

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

EMAKUME, GIZON
ETA HAURRAK

**CALZADOS
OINETAKOAK**

IRIGOYEN

ELKANO, 4
TEL. 943 55 08 31

HERNANI

EGUBERRI ON!!

OXEGUARDA
JATETXEA

Goizuetako kale Nagusian

Eskerrik asko torri
zaten guziri.
2020 urtea osasuntsua
izan dadila denontzat!
Eguberri on!

Abenduaren 3In, urte zahar
gauean afariak zerbitzatuko ditugu
Enkargatzeko: 629 76 85 34

Eskerrik asko 7
urte hauetan
gugan jarritako
konfiantzagatik

**Zorionak
eta urte
berri on!**

**ARRIATZU
BARAZKIAK**

Zapata kalea, 41. Hernani

sulabe
Ogirik beroena

Irrigoenea Okindegia. Hernani
Tel. 943 331 725

Peña Okindegia. Hernani
Tel. 943 552 398

Sulabe Kafetegia. Beraun
Tel. 943 529 237

Sulabe. Hernani
Tel. 943 554 954

Gabon jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Eraman zure mahaira Sulabe ogia

www.sulabe.com

Buruntzaldeako Publierreportajeak

Sasoian egoteko, euskera ahotan

eskualdeko kiroldegietako ikastaroetan euskeraren erabilera sustatzen dihardute. Urtea amaitzear dugu, balantzerako ordua izango dute eremu anitzetan, lan munduan bereziki. Bat baino gehiagorentzat baita eremu pertsonalean ere; egindakoaz edo bideratu gabe utzi ditugun proiektu horietaz hausnartu eta 2020ra begira jartzeko tenorean dira asko.

BURUNTZALDEA PUBLIERREPORTAJEA

Urte berriarekin erronka berriak marrazteko joera izaten da. Bizi-kalitate hobeagorako edo bizimodu zioriontsuagorako bidea marrazten hasten garenean planteatzen dugun erronka berrietako bat, sasoian egotea da edo norberak duenari eustea. Geure burua, osasuna zaintzeko zabalik ditugu urte osoan Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Kiroldegia.

Instalakuntza guztiotan eskuragarri dugu ikastaro eskaintza zabala; lehorreko nahiz uretako jarduerak, adin tarte guztiei, eta kolektibo espezifikoei zuzendurikoak. Kiroldegiaz norberak egin nahi duen erabilerara egokituko diren prezio eta abonua mota ezberdinak eskura.

Ikastarootara kirol jardueraren ezberdinetan trebatzera goaz bai, baina ezin ahaztu, hartue-manetarako eremu ere badi-tugu guneok. Zein da ahotan darabilgun hizkuntza igerileku nahiz gimnasioetara goazenean? Familia barruko transmisioan, Errenta Aitorpenean, autoeskolatan, Lanbide Heziketan edota merkataritzan egin izan duten moduan, Kiroldegietan ere euskararen erabilera sustatzen dihardute Buruntzaldeko udalek.

Kirola euskaraz programa

Udal instalakuntzetako entrenatzaile eta ikastaroetako parte hartzaileen gain dago noski, jarduerotan ahotan hartzen den hizkuntza-erabilera. Adina kontuan izanda, bi eremu argi desberdin du beharrak daude; batetik, 16 urtera arteko haur eta gaztetxoak. Kirol instalakuntzetako erabiltzaileek praktikatzan dituzten kirol jardueretan euskaraz aritzeko gai dira nagusiki, Buruntzaldeko udaletatik aipatzen dutenez, «Kirola euskaraz programa eta bereziki Kiroldegietako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa abian jarri zenetik». Euskaraz garatzen dira kirol jarduerak haur eta gaztetxoak biltzen dituen adin tarte honetan.

Erabilera datuak

16 urtetik gorakoan artean, helduetara jotzen badugu ale-

gia, anitzagoa da errealitatea. Euskara ahotan hartu eta kirol ekintzetan entzuna izateko hizlariak behar ditu noski. Jorratzen ari garen jardun eremu honetan, euskara komunikaziorako bitarteko bilaka dezakete begirale edo entrenatzaileek eta banaka nahiz taldean sasoian mantendu edota giharrak lantzen diharduten kirolariak.

Buruntzaldea eskualdeko kirol instalakuntzetako ikastaroetako erabiltzaileen artean, profil ezberdinak daude hizkuntzaren ezagutzaren eta erabilerari erreparatzen badiogu; egunerokoan nagusiki euskaraz mintzo direnak, euskaraz eta beste hizkuntzaren batean dihardutenak, edota nagusiki euskara ez den beste hizkuntza bat ahotan hartzen dutenak izaten dira jarduerotara gerturatzaren diren erabiltzaileak.

Errealitate anitz honek ezinbestean, ikastaroen antolakuntzan eragiten du. Zein hizkuntzatan jarduten dute kirol jardueretan? Ikastarook zein hizkuntzetan eskaini, nola erabakitzen dute? Jarduerotan baliatzen den hizkuntzak kontuan hartzeko moduko eragina du. Buruntzaldeko udaletatik aditzera eman dutenez, hizkuntza-erabileraren arabera talde mota ezberdinak sortzen dira ikastarootan.

Irizpideak tokiaren arabera

Hala, ikastaro bateko partaide guztiek edo ia denek (hiru laurdenetik gora), partaideen %75-100ak euskara ulertzen badute, ikastaroa erabat euskaraz edo nagusiki euskaraz eskaintzen da. Aldiz, partaideen erdiak baino gehiagok, hau da, %50-%75ak euskara ulertzen badu, nagusiki euskaraz ematen da ikastaroa edo elebrietan, euskaraz eta erdaraz. Jarduera hauetan aritzeko osatzen diren taldeetan, partaideen erdiak baino gutxiagok (%0-50) ulertzen badu euskara, elebrietan, hots, euskaraz eta gaztelaniaz, edo nagusiki gaztelaniaz eskaintzen da.

Irizpideok herriz herri nola aplikatzen diren aztertzen hasiko bagina, errealitate anitzarekin, tokian tokiko hizkuntza erabilera desberdinekin aurkituko ginatke. **K**



Buruntzaldeako kiroldegietako eskaintza oparoa da.

Hamaika ikastaro aukeran Buruntzaldean

Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta, Hernani eta Usurbilgo kiroldegietan ikastaro eta ordutegi desberdinak daude euskeraz.

BURUNTZALDEA PUBLIERREPORTAJEA

Andoain

-Lehorreko ekintzak: kross training, aerobik, zunba fit, spinning, pump, balance, aquagym, fitness, soinketa, yoga, GAP, Aerobik+GAP, Aerobik+Balance, Spining+Pump, Balance+Pump, Combat+Pump, Combat+Spining, Combat+Zunba Fit, K-stretch, hipopresiboak, emakume korrikalaria.

-Uretako ekintzak: igeriketa hastapena, hobekuntza, saio partikularrak.

Astigarraga

-Lehorreko ekintzak: aireko pilatesa, bungee airfit, pilatesa, bikarra zainduz, gimnasia 65+, hipopresiboak hastapena, mantentze hipopresiboak, fit pump, ziklo indoor, aerofit, zumba, strong by zumba, TRX, jump fit, HIIT, bosu xtreme, dantza moderna, irristaketa.

-Ikastaro konbinaketak (aireko pilatesa, bungee air fit eta hipopresiboak izan ezik).

Hernani

Fitness aretoko ikastaroak:

-Aerobika multifitnessa, zunba, mutifitnessa, karatea, pilatesa, ziklo indoorra, indoor walking-a, hipopresiboak, korea, korea+luzaketak, erditu ondorengo emakumeentzako hipopresiboak+luzaketak, hiru garren adinekoentzako gimnasia. Konbinatuak: indoor walking+zirkuitu entrenamendua. Pilatesa+zunba. Multijarduera: pilatesa, Indoor Walkinga, ziklo indoorra, hipopresiboak... Zirkuitu entrenamendua.

Uretako ikastaroak:

-Haurdunak.

-2003aren aurretik jaiotakoen-tzat: hastapena, mantentze igeriketa, aquagyma, aquagyma+pilatesa, aquagyma+indoor walkinga.

-55 urtetik gorakoentzat: man-

tentze igeriketa.

-65 urtetik gorakoentzat: hastapena, aquagyma, aquagyma+indoor walkinga.

-Egokitua.

-Osasuna hobetzeko ikastaroa, arazo eta lesio arinak dituztenentzat.

Lasarte-Oria

Mantentzeko gimnastika, entrenamenduen gida/banakako entrenamenduak/aholkularitza zerbitzua (>16); Kontzeju Txiki, nagusien parkeko makinak erabiltzeko aholkularitza (>60 urte); mantentzeko igeriketa, aqua gyma (<16); aerobika; zunba; body zunba; igeriketa gidatua; indoor txirindularitza; pilates; body pump; tonifikazioa; stretching; aniztasun funtzionala dutenentzat kirol jarduerak. Igerian ikastea.

Urnieta

Spinning, tonifikazioa, zumba, 3. adina, fitness aholkularitza.

Usurbil


-Areto jarduerak: spinning, pilates, pilates plus, 3. adina, zunba, total training, jumpfit, bizkar osasuna, hipopresiboak, a.f. gimnasia, yoga-mindfulness, yoga, mantenu gimnasia, eskalada helduak.

-Ur jarduerak: ur entrenamendu gidatua, matropilates, aquagym, aquazunba, igeriketa hobekuntza, igeriketa hastapena, igeriketa entrenamendua.

Ordutegiak Andoain

Allurralde Kiroldegia: lanegunetan 7:00-22:30 (igerilekua 21:30ak arte, sauna 21:00ak arte), larunbatetan 9:00-20:30 (igerilekua eta sauna 20:00ak arte), igande eta jai egunetan 9:00-13:15.

-Arrate: lanegunetan 9:00-13:00/16:00-23:00, larunbatetan 9:00-13:00/16:00-20:00 eta igan-



Igeriketa ikastaroak ematen dira bailarako igerilekuetan.

de zein jaiegunetan 9:00-13:15.

Informazio gehiagorako:

943 30 01 47

allurralde@andoain.eus

Astigarraga

Ordutegia: lanegunetan 8:30-22:30, larunbatetan 9:00-13:00/15:00-20:00, igandeetan 9:00-13:00.

Informazio gehiagorako:

943 335 050

udala@astigarraga.eus

Hernani

-Kiroldegiko igerilekuak: lanegunetan 6:45-21:00, larunbatetan 9:00-20:00, igande eta jaiegunetan 8:30-13:00.

-Gimnasioa, pistak, frontoia, squash, sauna: lanegunetan 6:45-21:30 (sauna 8:00-21:30), larunbatetan 9:00-20:00, igande eta jai egunetan 8:30-13:00 (sau-

na 9:00-13:00 artean).

Informazio gehiagorako:

943 552 185

kirola@hernani.eus

kirola.hernani.eus

Lasarte-Oria

Maialen Chourraut:

-Kiroldegia: lanegunetan 7:00-22:30, larunbatetan 9:00-20:00 artean, igandeetan 9:00-13:00 artean.

-Igerilekua: lanegunetan 7:00-12:30 / 14:00-21:30, larunbatetan 9:00-13:00 / 16:00-20:00, igandeetan 9:00-13:00.

-Sauna: lanegunetan, 9:00-12:30/15:00-21:00. Larunbat, igande eta jai egunetan itxita. Kirol gunea (Michelin): lanegunetan 15:30-22:30, larunbatetan 9:00-20:00, igandeetan 9:00-13:00.

Informazio gehiagorako:

943 376 182

kirolak@lasarte-oria.eus

Urnieta

Lanegunetan 8:30-22:00, larunbatetan 9:00-21:00, igande eta jai egunetan 9:00-14:00.

Informazio gehiagorako:

943 008 328

kirol@urnieta.eus

Usurbil

Lanegunetan 7:00-12:30/14:30-22:00 (igerilekuaren itxiera 12:15ean eta 21:00ean), larunbatetan 9:00-21:30 (igerilekuaren itxiera 21:00etan), igande eta jai egunetan 9:00-13:30 (igerilekuaren itxiera 12:45ean).

Informazio gehiagorako:

943 372 498

kirola@usurbil.eus. **K**



Andoaingo Udala
Goiko plaza, z/g
20140 Andoain



Astigarragako Udala
Foru enparantza
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA
Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria



Urnietako Udala
San Juan plaza, z/g
20130 Urnieta



Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaz
20170 Usurbil

Kronika egunero zuekin egiten delako

BAZKIDEAK

448

KRONIKALARIAK

70

BEZEROAK

524

IRAKURLEAK

INFORMAZIO
EMAILEAK

ERAKUNDE PUBLIKO
ETA PRIBATUAK

Mila esker

Kronika

DO
BE
RA
EUSKARA
ELKARTEA